



Lehiaren  
Euskal Agintaritza  
Autoridad Vasca  
de la Competencia

## HERRI-ADMINISTRAZIOEI ZENBAT GOMENDIO, ANIMALIAK JASO, ZAINDU ETA BIZITOKIA EMATEKO ZERBITZUA ONDO EMATEKO.

### Sumarioa

<a href="#">I. AURREKARIAK</a> .....	2
<a href="#">II. APLIKATU BEHARREKO ARAUDI SEKTORIALA</a> .....	2
<a href="#">III. ADMINISTRAZIOENTZAKO ZENBAIT GOMENDIO</a> .....	3
<a href="#">1. Prestazioa noiz artekoa den.</a> .....	4
<a href="#">2. Prezio unitarioak.</a> .....	4
<a href="#">3. Animalien titularitatea</a> .....	4
<a href="#">4. Prestazioa ordaintzea.</a> .....	5

### Osoko bilkura

María Pilar Canedo Arrillaga andrea, batzordeburua

Natividad Goñi Urriza andrea, batzordekidea

Rafael Iturriaga Nieva jauna, batzordekidea

Idazkaria: Alfonso Gómez Fernández jauna

1. Lehiaren Euskal Agintaritzak (aurrerantzean, LEA) bilera egin du, goian aipatutakoak elkartuta, 2015eko uztailaren 16an, eta honako gomendio hauek eman ditu.



## I. AURREKARIAK

2. Lehiaren Euskal Agintaritzak, Bizkaiko mankomunitate bateko ordezkari batzuen bitartez, animaliak jaso, zaindu eta bizitokian edukitzeko zerbitzu baten jardunaren berri izan zuen.

Jardun horrek, itxuraz, kalte ekonomikoa zekarkien administrazioei, dirudienez animaliak ez zituztelako sakrifikatzen, nahiz zerbitzua emateko kontratatutako enprekin hori itzartuta egon, animaliak bizirik edukitzeko legeak ezartzen duen gutxieneko epea amaitutakoan.

LEAk ez du aurkitu ustezko hitzarmen horren probarik. Nolanahi, mankomunitateak eskatuta, kontu horren nondik norako faktikoak eta juridikoak aztertu ditugu, eta analisiaren arabera, esateko moduan gaude zerbitzu horien kontratazioa hobetzeko tartea egon badagoela. Zerbitzuok hobeto kontratatuz gero, aukera gutxiago legoke enprekin ezer hitzartzeko, eta, hortaz, baliabide publikoak zorrotzago erabiliko lirateke.

Gomendio hau Legeak Lehiaren Euskal Agintaritzari aitortutako eskumenaren barruan eman dugu, hau da, «herri-administrazioei merkatuetan lehiari eusteko edo berreskuratzeko gomendioak zuzentzeko» eskumenaren barruan <sup>1</sup>.

## II.- APLIKATU BEHARREKO ARAUDI SEKTORIALA

3. Animaliak Babesteko Legearen arabera, hau da abandonatutako animalia: "Abandonatutzat hartuko da jatorriaren edo jabearen inolako identifikaziorik ez daraman etxeko animalia, eta inolako pertsonaren laguntasunik ez duena, bai eta, galdu arren, jabeak edo pertsona baimenduak salaketarik jarri ez badu galdu dela-eta" (14. artikulua)<sup>2</sup>.

Bestalde, Udalei eta Foru Aldundiei dagokie "abandonatuta dauden etxeko animaliak jasotzea, bai eta, identifikazioa eraman arren, beren jabeen kontrolik gabe kalean aske dabilzanak jasotzea ere. Era berean, haiei dagokie animalioi nonbait gordetzea, harik eta jabeak berreskuratu arte, beste inori laga arte edo

<sup>1</sup> Ikus Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzko otsailaren 2ko 1/2012 Legearen 3.3.e) eta 10.n artikulua (EHAA, 29. zk., 2012ko otsailaren 9koa).

<sup>2</sup> 6/1993 Legea, urriaren 29koa, Animaliak Babestekoa. EHAA, 220 zk., 1993ko azaroaren 15ekoa.



akabatzen diren arte" (15. artikulua). Txakurren gune zoologikoekin ere hitz egin dezakete tokiko erakundeek, animaliak jasotzeko zerbitzua emateko<sup>3</sup>.

Horretarako, udalek, langile eta instalazio egokiak eduki behar dituzte, edo, bestela, zerbitzu hori enpresa partikularrekin, udalaz gaindiko erakundeekin edo foru-aldundietako organo eskudunekin hitzartu zerbitzua.

Identifikatu gabe dagoen txakur bat, gutxienez, 30 egun natural eduki beharko da atxikita (16. artikulua). Epe hori igaro eta inork erreklamatzeko ez badu, administrazioak animalia eskuratu dezake, beste bati utzi diezaiolke edo hiltzeko agindu.

Animaliak identifikazioa badarama, sinesteko moduan jakinaraziko zaio jabeari animalia hori jaso edo atxiki dela, eta hark 7 egun balioduneko epea izango du berreskuratzeko. Lehenik, animaliak jasotze-zentroan eragin dituen gastuak ordaindu beharko ditu. Epe hori igaro eta jabeak txakurra ez badu berreskuratu, animalia eskuratu daiteke, beste bati utzi edo hiltzeko agindu.

Legeak ezarrita dauka egin daitekeen guztia egin arren edukitzaile pribaturik aurkitzen ez denean, eta txakurrak jasotzeko instalazioetan denbora gehiago edukitzea ezinezkoa denean. orduan besterik ez, sakrifikatu daitezke herri-administrazioaren eskuan dauden animaliak (17. artikulua).

Jurisprudentziak dagoeneko argituta dauka prezeptu hau, Bilboko administrazioarekiko auzi-errekurtsoen 3. epaitegiko epaiak hau ezarri baitu:

“Ondorioztatzen da udalak zaindu behar dituela [animaliak] harik eta ezinezkoa duen arte, eta obligazio hori ez dagokiola kontratistari kontratuan jartzen duenetik harago, eta kontratu horretan ezin da inoiz jarri animalioek mugarik gabe eduki behar dituenik, hori egitea (kontratuaren exekutatzeko lanaren itxura badu ere) udalaren ardura besteen gain jartzea bailitzateke, berari dagokio-eta arlo horretako eskumena.”<sup>4</sup>.

### III.- ADMINISTRAZIOENTZAKO ZENBAIT GOMENDIO

4. Administrazioei gomendatzen diegu, animaliak jasotzeko zerbitzua ez badute berek ematen, zerbitzua kontratatzeko lehiaketak egitea edo, gutxienez, hiru aurrekontu eskatzeko. Legeak aukera eman arren kontratu txikiak zuzenean esleitzeko, egiaztatuta dago goiko formula horietara jotzeak lehia pizten duela

<sup>3</sup> Euskal Autonomia Erkidegoan txakurrak edukitzeari buruzko ekainaren 1eko 101/2004 Dekretuaren 8. artikulua. EHAA, 130zk.,2004ko uztailaren 9koa.

<sup>4</sup> Bilboko administrazioarekiko auzi-errekurtsoen 3. epaitegiaren 140/2013 epaia, 2013ko urriaren 21ekoa (errekurtsoa du jarria: 206/2013).



eta, horren ondorioz, zerbitzua bera hobetu egiten dela: berrikuntza, eskaintza-egileentzako aukera-berdintasuna, bereizketarik ez, eta prezio baxuagoak<sup>5</sup>.

Administrazioak erabakitzen badu kontratuak lizitatzea, administrazioaren gastua ahalik eta gutxiena izateko modua emango duten klausulak jarri beharko ditu, betiere, eman beharreko zerbitzuaren kalitatea galdu gabe.

Horretarako, komenigarria iruditzen zaigu pleguetan honakoak zehaztea:

### **1. Prestazioa noiz artekoa den**

**5.** Gomendagarria da zehatz adieraztea noiz arte emango zaien bizitokia eta zaintza kaletik jasotako animaliei. Horrek adieraziko du kontratuak zer denbora bete behar duen eta noiz arte ordaindu behar duen administrazioak.

### **2. Unitateko prezioak.**

**6.** Kontratuaren prezioa zatikatu egin behar da, eguneko eta kontu egindako animalia bakoitzeko, hartara, aurretik ikus daiteke zenbateko kostua hartuko duen bere gain administrazioak, enpresek horren arabera prestatzeko eskaintzak.

### **3. Animalien titularitatea.**

**7.** Argi eta garbi adierazita utzi behar da animalien titularitatea udaletxeena edo mankomunitateena dela, kontratuak zehazten duen epearen barruan.

Ez da komeni pleguetan jartzea, **ezta hobekuntza bezala ere**, lehiatzaileek animaliak beren gain hartzeko konpromisoa hartzeko aukera. Ustezko hobekuntza honek kalte egingo lieke lehiatzaileei, horrek denbora mugatu gabe uzten duelako, eta, horregatik, ezingo luketelako kostu-azterketa zorrotzik egin, beren negozioaren benetako errentagarritasuna zehatz ezartzeko.

Hala, animaliak ez sakrifikatzeko edo ahalik eta beranduen sakrifikatzeko helburua duen edozein hobekuntzak animaliak adoptatzeko kanpainen bidetik jo beharko luke.

---

<sup>5</sup> Ikus Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren 138.3 artikulua, Legegintzako 3/2011 Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onartzen duena (BOE, 276. zk., 2011ko azaroaren 16koa).



#### **4. Prestazioa ordaintzea.**

8. Komeni da esleipendun berriari obligazioa jartzea aurretik zerbitzu hau ematen zuen enpresaren egoitzetan lehendik dauden animaliak bere gain har ditzan.

**BATZORDEBURUA**  
**MARIA PILAR CANEDO ARRILLAGA**

**IDAZKARIA**  
**ALFONSO GÓMEZ FERNÁNDEZ**

**BATZORDEKIDEA**  
**NATIVIDAD GOÑI URRIZA**

**BATZORDEKIDEA**  
**RAFAEL ITURRIAGA NIEVA**